

ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

Errespetu osoz

Denbora batez ezbaian ibili ondoren, engainua eta normaltasun-itxura luzatu ala ez, gertatutakoa kontatzea erabaki dut, artatzen nauten medikuek hala aholkatuta, euskaltasunarekiko nire harremana egoki hasiko badut berriro ere.

Nire kasua ez da lehenengoa. Medikuntza-bibliografiak beste asko jaso ditu. Shock traumatiko batek hainbat afasiaklase (zenbaitetan, itzulgarriak) eragin ditzake. Batzuetan, hizkuntza-ahalmen zehatzak desagertzen dira (alexian, esaterako, irakurtzeko gaitasuna, baina ez idaztekoa, galtzen da; paziente anomikoeak, berriez, lexikoaren biltegia dute kalteturik: batzuek ezin dituzte izen konkretuak burura ekarri, baina bai abstraktuak; bestetuek ezin dituzte gauzaki bizigabeak izendatu...), kaltearen kokapena zein den. Ama-hizkuntzak eta helduaroan ikasitakoek garuneko alde ezberdinak hartzen dituzte. Garezurra irekirik egindako ebakuntzetan lokalizatu ahal izan da ikasitako mintzairak non kokatzen diren (zona horiei deskarga elektriko txikiak emanez, hizkuntza horien mintzamina inhibititu ahal izan da tarte batez). Kalte neuronal zehatz batek hizkuntza bat ezaba dezake disko gogorretik, desinstalatu.

Horixe gertatu zait niri. Modu partzialean ingelesa (7 urterekin ikasten hasi nintzena, honek garrantzirik baldin balu) eta euskara oso-osorik (17rekin ikasten hasia) ahaztu ditut.

Senide eta adiskide guztien babesa eskertu nahi dut; bereziki Patxi Larrionek eta Alberto Barandiaranek jokatu duten papera, asteotan ni estaltzeaz gain, beren burua eskaini baitute euskara niri berri-rakasteko, prozesuak berak oroimenaren gorua askatu eta orain arteko bizitzaren haria



JOSU SANTESTEBAN

birlootu ahal izatearen uste zintzoan. Biho-tzez estimatzen diet.


Baina, errespetu osoz, hizkuntza berri bat ikasteko nekeak gainditzen nau. Euskara bezain korapilatsua, gainera. Dagoeneko ez dut burua holako kontuatarako. Gazteago banintz... Lanak ez dit ezertarako astirik uzten eta krisialdiak ez ditu gauzak errazten. Nork bere gaitasunak neurtzen jakin behar. Ingelesa ezinbestekoa da gaur egun, eta, bestela, aspaldian dut alemana (gaurko egoera ekonomikoan irteera franko eskaintzen duena bidenabar) ikasteko apeta, eriondoan hainbeste lagundu nauten Schuberten *Lieder* azkenik ulertu eta *Zettels Traum* jatorrizkoan leitu ahal izateko, besteak beste.

Argi eta garbi maitasun berezia diot eta beti gordeko diot euskarari, ez alferrik haren abaroan pasa dut (kasualitatea da?) zehazki neure bizialdiaren erdia. Egiazki opa diot, ahal duen neurrian, gara dadila eta sarbidea izan dezala oraindik debeku zaizkion alorretan, pluraltasun eta hiztunen askatasunetik, inposaketarik gabe. Ez gutxitan, euskal kantak aditzean, melankolia nagusitzen zait; hitzen esanahiaz ez naiz jabetzen, baina sakonean ulertzen ditut, sentimena –txorien txorrotxioek itzultzaileen beharrik ez duten modu berean– bihotzeraino iristen baita. Nik idatzitako euskarazko liburuak ezin irakurtzeak ere tarteka bihozmintzen dit; baina hainbeste dago leitzeko eta zerbaitegatik diraukete itzuli gabe...

Lehenago ezagunak, batzuk lagun-minak, itzurtzen ditut orain, gogaitzen baitit nik gaztelaniara behartzeak eta gogaitzen baitit nitaz ahaztu eta, solasa biziagoturik, haien artean euskaraz jarraitzeak ere, irri edo apalago hitz egiten dutenean neure baitan galdetzen dudalarik nitaz arituko ote diren.

Hona bidali gutun ireki honen bidez, adiorik ez, *eskarrik asko danori eta betira arte*.

(Erredakzioan itzulia). ■



irudia: Antton Olariaga

